

noaua



'HARRO HERRI' BAT, KORRIKARAKO PREST

Datorren asteartean, gau partean iritsiko da Zubietatik barrena / 06-09

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Iñaki Zabaleta:
"Humboldttek zioen bezala, euskara herriaren ahoan da" / 08



NOAUA

"Behar-beharrezkoa da, oraindik ere, Martxoaren 8an kalera ateratzea" / 10



NOAUA

"Mikroipuinak (Elkar) liburu atsegin bat da. Moñoñoa, oparitzeko modukoa" / 14



NOAUA

Korrikaren aldeko Elkartasun Azokan parte hartzeko azken egunak / 22



ENERGIA AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Energiari buruzko zalantzak
argituko dizkizugu, doan:
ekarri argindarraren
eta gasaren fakturak,
eta egokiak diren ikusiko dugu

Hartu hitzordua!

943 37 19 51 / iromero@usurbil.eus

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUA

Aitor Etxeandia

Martxoak 15, OSTIRALA

15:30-18:30 Usurbilgo Potxoenea kultur etxean



SARRERAK: aldez aurretik
Alkartasuna edo
www.alkartasuna.eus

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!



Joseba Larratxerena, Itzuliko kartela

Iaz Euskadi Literatura saria irabazi zuenez, berari egokitu zaio aurtengo lasterketaren kartela egitea.

Apirilaren 1etik 6ra antolatu duten 63. Itzulia ez da Usurbildik igaroko, baina Euskal Herriko txirrindularien bira udalerrri honi lotua egongo da aurten ere, sortzaile baten bidez. Izan ere, Joseba Larratxe "Josevisky" ilustratzaileak sortu du Itzuliaren kartela.

Kartel hau diseinatzeko enkargua sari baten eskutik heldu zaio Larratxeri. Iaz, Euskadi Literatura saria jaso zuen

Ni ez naiz Mikel Laboa (Elkar) komikiagatik. Azken sei urteotan, sari hau jasotzen duenak sortzen du Itzuliko kartela.

Bi irudi

Joseba Larratxek berak azaldu duenez, bi irudi baliatu ditu kartel hau egiteko. "Batetik, txirrindularien esfortzu aurpegiak, izerditan, ahoa zabalik edo hortzak estuturik,



Joseba Larratxe ilustratzailearen kartelak iragarriko du Itzulia Basque Country 2024.

mendian gora. Bultzada horrekin erlazionatu dut beti txirrindularitza. Bestetik, euskal zaletuen irudia etorri zitzaidan gogora, Euskal Herriko eta atzerriko portuetan, errepide bazterra ikurrinez betetzen. Izan ere, zaleak dira euskal txirrindularitza gehien

goraipatzen dena. Ondoren, txirrindulariaren betaurrekotan zaletuen isla erakutsiz bi irudi horiek bakar batean elkartu nitzakeela konturatu nintzen. Modu horretan, txirrindulariaren azalean jartzen gara eta berak ikusten duena ikusten dugu".

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Martxoaren 14tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarikgabe. Martxoaren 21ean osteguna, garbigune hau Usurbilgo kaxkora eramango dute.

1964an jaiotakoek bazkaria ekainaren 1ean izango da

Ekainaren 1ean bilduko dira bazkaritarako. Era honetan, 60. urtemuga ospatuko dute. Non elkartuko diren, informazio hori ez dugu jaso oraindik. Dena den, interesa duenak telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 647 458 997 (Mari Jose).

1952an jaiotakoek bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgo jatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Azken aldizkariak, jai egunen aurretik

Datozen jai egunak tarteko, martxoaren 22an kaleratuko dugu azken aldizkaria. Ordu-rako oharrak hilaren 18a baino lehen helarazi beharko dituzue bideotatik: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321. Etenaldi osteko hurrengo zenbakia, apirilaren 12an kaleratuko dugu.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Bakegile sutsua

Duela egun batzuk zendu zen 90 urterekin Juan Mari Uriarte Donostiako Gotzain emeritua. Bere oroimenezko hileta martxoaren 21ean ospatu zen Donostiako katedralean. Leporaino bete zegoen gure tenplu nagusia. Mariaren Bihotzak koroak kantatu zuen eta neroni izan nintzen organo-jotzaile. Oro har aldare ondoko organoan jarduten naiz, baina egun berezi horretan koroan daukagun organo monumentalean: Espainiako handiena, 8.426 erregistro ditu, ehunka doinu konbinaketa erabil ditzaket. Bitxi bikaina. Nik dakizkidan pieza ederrenak jo nituen Joan Mariren (horrela deitzen genion soilik) oroimenez eta ohorez.

Berarekin harreman estua izan nuen musika zela medio. Santo Tomas Lizeotik jubilatutik nintzenean, berehala deitu zidan katedraleko gotzain ospakizunetan musika arloaren ardura har nezan. Elkarrizketa kurioa izan genuen. “Zure lan berri hau kristau konpromiso gisa hartzea nahi nuke”, esan zidan. “Gratis et amore”, esan nahi zuen, hau da, musu-truk. “Ez dakit badakizun, Joan Mari, esan nion, baina, parroko, koro zuzendari eta organo jole bezala ez dut inoiz sosik kobratu. Irakasle soldatetik bizi naiz eta ez dut besterik behar. Beraz, katedraleko ekonomiak ez dunoiztuko. Doan jardungo naiz”. Bere irribarre sinpatiko harekin erantzun zi-



Juan Mari Uriarte zendu berri da.

dan: “Scio qui credidi”, hau da, “badakit norekin fidatu naizen”.

Hiru alderdi azpimarratuko nituzke Uriarteren profilean: oso gertuko harremana, izaera irekia eta herrian sakonki txertatua. Añorgako Parroko naitenez, ezin dut ahantzi nire lagun Joxe Antonio Pagolarekin izan zuen jarrera “Jesus, hurbilketa historikoa” afera zela eta. Hain zuzen ere, Pagolaren liburu hori Vatikanoko kondanatu egin zuen eta Gotzain gehienek Erromako jarrera defendatu zuten. Uriarte Pagolaren defentsan atera zen. Ez zuen zalantza ttipienik izan. Azkenean, inkisidoreek galdututa egin zuten eta Pagolak irabazi.

**"NIK DAKIZKIDAN
PIEZA EDERRENAK
JO NITUEN JOAN
MARI URIARTEREN
OROIMENEZ ETA
OHOREZ"**

Inkisidore bat bera ere ez zen izan gai Pagolari barkamena eskatzeko, publikoki behintzat. Beharrean ikusten zuen orori lagundu zion, hots, aterperik gabekoei. “Ezin zen ohe goxo batean sartu, besteak hotzez zeuden bitartean”, esan zuen Fernando Prado Gotzainak.

Uriarteren ibilbidean komunikabideek gehien nabarmendu duten lana izan da bakegintza. Horretan jardun zen buru-belarri bere adierazpenek eta idatziek islatzen duten legez. “Bakea prestatu” idazkia kale-ratu zuten gure Gotzainek eta besteak beste ETaren indarkeria desagertu behar zela azpimarratzen zuten, baina baita segurtasunaren mesedetan giza eskubideak urratzeko arriskuaz ere ohartarazten zuten. Bake prozesuak porrot egin zuen eta 1999an ETak su etena hautsi zuen. “Zaplada itzelak jaso ditut bakea lortzen laguntzeko egindakoagatik”, zioen Uriartek elkarrizketa batean.

Amaitzeko, foro honetara ekarri nahi nuke 1978an ETak erail zuen Jose Maria Portellen alargunak Uriarteri idatzi dion gutunaren zatitxo bat. Honela dio Carmen Torres Ripak: “Bakardadearen gau latz hartan iritsi zitzaidan zure karta. Motza eta samurra zen. Halako berotasunarekin Jainko gizon batek bakarrik idatz zezakeen. Juan Mari, atsedean har ezazu bakean, Herri hau baketzen eta kontsolatzen hainbeste egin duzun horrek”.

Martxoaren 22ko tertulia filosofikoa Garazi Aizpuruak gidatuko du

Usurbilgo Oinherri taldeak eta Jakinmin elkarteak filosofatzea helburu duten saioak antolatu izan dituzte lehendik gaztetxo eta helduentzat. Izan duten arrakasta ikusita, datorrena, helduei zuzendurikoa, martxoaren 22rako iragarri dute 18:00etan Potxoenean.

Plaza kopurua, mugatua

Gonbidapena aurrez eskuratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforman. 15 lagunentzako tokia egongo da. Saioa Garazi Aizpuruak bideratuko du. Antolatzaileek gogorarazi moduan, “galderak irekitzen du bidea” eta horixe izango da hain zuzen saio honen abiapuntua. “Solaslaldi filosofikoa gai edo galdera jakin bati buruzko iritzi trukaketa irekiko gune gisa planteatzen da, betiere aniztasuna errespetatuz”.

Larunbat honetan, Elkargunearen inguruko saio berri bat Udarregin

Otsaila hasieratik abian den parte hartze prozesuko hurrengo saioa, larunbaterako, martxoaren 16rako dago finkatua, 10:00-13:30 artean, Udarregi ikastolako jangelan.

Helburuak eta balioak

Elhuyarrek dinamizaturiko saioko gaia honakoa izango da: “Zein helburu eta balio izango ditu Elkargunearak?”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Buruntzaldeko "erregimen bereziko gunean" adosten dira tarifa hauek.

Berrikuntza, taxi zerbitzuaren tarifetan

Aurrerantzean, ordutegi eta egunaren arabera hiru tarifa mota aplikatuko dituzte taxi zerbitzuek eskualdean.

Urtero moduan, 2024rako ere taxi zerbitzuaren hiri tarifak onartu zituen udalbatzak aho batez, iragan ostegunean egindako osoko bilkuran. Ohi bezala, Buruntzaldean eraturiko "erregimen bereziko gunean" adosten dira tarifa hauek eskualde osorako eta urtero berrikusi egiten dituzte. Bertan biltzen dira sei udalak eta Gipuzkoako taxi elkarteak.

Aurtengoan, bada nobederik, udal gobernu taldetik azaldu zuten. Izan ere, "laster Oarsoaldea eta Buruntzaldea eskualdeen eta Donostia udalerriaren artean taxiaren Erregimen Bereziko Eremua eratu denez, beharrezkoa da hiri-garraioko zerbitzuaren tarifak bateratzea". Horregatik hain zuzen, "etorkizuneko Erregimen Bereziko Eremuak eragina izango duen taxi-sektoreko kideen adostasun osoarekin, bateratze hori Donostiako tarifa-araubidearen babesean eskatzen da. Hori dela eta, Donostiako tarifa-erregimenaren esparruan dagoen 5. tarifa eskualdeko gainerako udalerrietara zabalduko da".

Horixe da hain zuzen, 2024ko taxi zerbitzuari lotutako tarifetan txertatuko duten berrikuntza. Orain arte bi tarifa mota zituen zerbitzu honek; berri bat erantsiko diote aurtengoan, bosgarren tarifa deiturikoa. Honako hau, ostiral, larunbat eta jai-bezperako gaueko 22:00etan hasi eta igande eta jaiegunetako goizaldeko 7:00ak arte aplikatuko da.

Gainerako bi tarifa motak lehendik indarrean zeudenak dira. "Tarifa 1" deitutakoa, lanegunetako iraganetik, goizaldeko 7:00etan hasi eta gaueko 22:00ak arte. "Tarifa 2" izenekoa, aldiz, "Tarifa 5" aplikatzen ez den gainerako gauetan, 22:00-07:00 artean, baita "tokiko araudian ezarritako jaiegunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta abenduaren 31n ere".

Jaiegunak

Tokiko jaiegunok izango dira: ekainaren 24a Andoainan eta Hernanin, uztailaren 1a Lasarte-Orian, 2a Usurbilen, uztailaren 26a Astigarragan eta irailaren 30a Urnietan.

Aginagako herri kooperatibaren lehen batzarra

Martxoaren 22rako iragarri dute 19:00etan Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. "Herri Kooperatibaren lehen Batzar Orokorra izango dugula jakinarazi nahi dizuegu. Bileran honetan, estatutuen onarpena eta jarraitu beharreko hurrengo urratsak eztabaidatuko ditugu. Zuen parte-hartzea garrantzitsua da, beraz, zuen iritzia eta ekarpenak entzuteko itxaroten zaituztegu", adierazi dute deitzaileek. Gaiok hartuko dituzte ahotan: estatutuen onarpena, Herri Kooperatibaren Fundazioa, hurrengo pausoak eta beste-lakoak.

Alkartasunakoen ikastaroa

"Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak" izeneko saioa antolatu du Alkartasuna kooperatibak martxoaren 15ean, 15:30-18:30 artean Potxoenean. Aitor Etxeandiak bideratuko du saioa. "Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira; Ekoizpenaren hobekuntza. Arbolaren erregulazioa fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu. Ongarriketa desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira". Izena bideotatik eman ahalko da: 943 361114 / alkartasuna.eus



Aitor Etxeandia izango da hizlaria.

Martxoaren 28an, Usurbildik Arantzazura oinez

Martxoaren 28rako herritar talde batek Usurbildik Arantzazura oinez joateko antolatutako txangorako izena, martxoaren 20a baino lehen eman behar da. Prezioa, 50 euro, izen-emandako mendizale kopuruaren arabera. Horren baitan sartuko da noski, Arantzazutik Usurbilera autobusez egingo den itzulerara. Antolakuntzatik helarazi duten ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo. Informazio gehiagorako edota izena emateko deitu 662 039 829 telefono zenbakira.

LH-koentzako Kirol Astea

Iaz bezala, Usurbilgo Kirol Astea antolatu dute alor honetan jardunean dabiltzan zenbait herri eragileek; herriko pilota, futbol eta eskubaloitako taldeak biltzen dituzten Pagazpe pilotak, Usurbil F.T.-k eta Usurbil Kirol Elkarteak. 6-12 urte arteko gaztetxoek datorren martxoaren 22an murgilduko dira bi asteko oporraldian. Tarte horretarako antolatu dute aipatu eragileok Usurbilgo Kirol Astea; hilaren 25ean hasi eta 28ra arte, 10:00-13:00 artean. Ekimenerako izena online eman ahalko da martxoaren 22ra arte. Prezioa, 40 eurokoa izango da; 30 eurokoa, izena ematen duen gaztetxoak txokoetan anai-arrebarik baldin badu.



6-12 urtekoei eskainia dago.



Martxoaren 19an asteartearekin igaroko da Korrika usurbildar lurretatik. Zubietatik heldu eta Aginagatik irtengo da.

Korrika Eguna eta hitzordu gehiago, euskararen aldeko lasterketa girotzeko

Korrika Eguna iragarri dute euskararen aldeko lasterketa geure artera helduko den martxoaren 19rako. Egun horren aurretik eta ondoren ere izango da ekimenik.

23. Korrika badator! Martxoaren 19an helduko da geure artera, gauez. Etumeta AEK euskaltegiak jakinarazi du ibilbide zehatza eta lekukoa nortzuk eta nondik nora eramango duten. Horrekin batera, lasterketa datorrenez, AEKren ekimena girotzeko osatu duten egitarau zabala ere plazaratu du.

Ekimen gehienak, hilaren 19an bertan izango dira bai Kaxkoan, baita Aginagan eta Zubietan ere; Korrika Eguna iragarri dute eragile hainbat

lankidetzan jarri dituen ekimenak. Ez da faltako jan-edianik edota lasterketa aurreko beroketa ariketarik ere. Musikaz edo bertsoz girotuko dira gainera.

Ekimen ugari iragarri dira
Halere, eguna ikastetxeek emango diete hasiera, haien Korrika Txikiek. Korrika Egunaren aurretik eta ondoren ere ez da ekimenik falta. Honatx antolatzaileek NOAUA!ri helarazitako egitaraua:

23. Korrika Kulturala Usurbilen

Martxoak 11-15, astelehenetik ostiralera

- 16:15-16:45 AEK laguntzeko azoka solidarioa Agerialdeko patioan.
- Antolatzaileak: Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleak.

PETOAK (6 EURO) ETA BANDEROLAK (5 EURO) ETUMETA AEK EUSKALTEGIAN DITUZTE SALGAI

Martxoak 13, asteazkena

- 18:00 Bertso tailerra Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.
- Ondoren, pintxoak eta sagardoa.

Martxoak 16, larunbata

- 18:30 "Bizkarsoro" filmaren proiektzioa Zubietako Kaxkapen.

Korrika Txikia

Martxoak 19, asteartea

- 14:30 Korrika Txikiak Zubietan, Aginagan eta Usurbilen.

Korrika Eguna

Martxoak 19, asteartea

Kaxkoan:

- 17:00 Familia plana Zirimar antolatua.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:30 Bertso saioa, bertso eskolako eskutik.
- 20:00 Afari irekia Aitzagan. Txartelak 12 eurotan Aitzagan.
- 20:30 Gazte-ilunabarra Aztarrikaren eskutik.

Zubietan:

- 20:30 Afaria: Bokadiloak: patata tortila, xolomoa (gazta edo piperrekin). Edaria, postrea eta kafea. Prezioa: 6 euro.

Aginagan:

- 20:30 Afaria: patata tortila, txorizo egosia eta sagardoa.
- 21:00 Dja girotzeko eta karaoka.
- 23:10 Korrikarako prestatu-gara.

Martxoak 21, osteguna

- 18:00 Kultur ibilbidea Usurbilen barrena, Etumeta AEK euskaltegi paretik abiatuta: musika, abeslariak, erraldoiak...

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko enreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Zubieta, Santuenea, Kalezar, Kaxkoa eta N634 paretik Atxegalde zein Aginaga zeharkatuko ditu 23. Korrikak.

Lasterketaren ibilbidea eta lekuko aldaketak, prest

23. Korrikak udalerrri honetan egingo duen ibilbidea zehaztua du jada Etumeta AEK euskaltegiak; baita lekukoa nortzuk eta nondik nora eramango duten ere.

Euskararen aldeko lasterketa martxoaren 14an Irunen hasi eta hilaren 24an Baionan amaituko da. Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duen ekimena erdibidera helduko den une horretan igaroko da gure arte; martxoaren 19an, astearte gauerdiantz iristear izango garen momentuan hain zuzen.

22:50 aldera sartuko da euskaltzaleen uholdea Zubieta hipodromoko zubitik. Segidan, Zubieta, Santuenea, Kalezar, Kaxkoa eta N634 paretik Atxegalde zein Aginaga zeharkatuko ditu 23. Korrikak, gauerdian bueltan lekukoa Mapilen oroitarren esku utzi arte. Tartean, hamar kilometroko bidea izango du lasterketaren geure artean.

Tarte horretan, Baionara heldu arte ezagutuko ez den,

barnean ezkutuan mezua daraman lekukoa herri eragile askoren artean, eskuz esku ibiliko da. Nortzuk eramango duten eta nondik nora zehaztu eta ezagutzera eman du jada Etumeta AEK euskaltegiak. Segidan duzue zerrenda. Horrekin batera, ibilbidea zein den argiago ikusi eta lekuko aldaketak non egingo diren zehazten duen bideoa ere kaleratu dute.

MARTXOAREN 19AN, 22:50 ALDERA IRITSIKO DA KORRIKA ZUBIETAKO HIPODROMOTIK

Martxoak 19 asteartea, ordutegia

Ordua	Tokia
22:53:38	Zubietako hipodromo etorbideko zubia.
22:57:04	Irigoién, 34 (Zubieta).
23:03:34	Learritza pasealekua, 23 (Zubieta).
23:10:04	Learritza pasealekua, 23 – Amiri (Zubieta).
23:16:34	Santuenea, 37.
23:23:04	Belmonte, 1 (Kalezar).
23:29:34	Puntapax, 24 (Artzabal).
23:36:04	N-634- 4.
23:42:34	N-634- 5.
23:49:43	Aginaga, 12.
23:57:31	N-634 KM- 8, Aginagako Mapil baserriaren aurrean (Hemen Oriok hartuko du lekukoa).

Lekukoak eta lekuko aldaketak

Zubieta

- 1-Zubietako Eskola Txikia eta Zubietako Herri Batzarra: Hipodromoa-Araeta.
- 2-Lanbide Eskola: Araeta- Etxeberri Txiki bidea 9.
- 3-Ikaslan: Etxeberri Txiki bidea, 9-Etxetxo.
- 4-Fagor Automation: Etxetxo-Artzabaleta.
- 5-Enpresa Bidea: Artzabaleta-Amiri.
- 6-Orbeldi Dantza Taldea eta Zumarte Musika Eskola: Amiri-Santueneako bidegurutzea.

Usurbil

- 7-Aitzaga Kultur Elkarte: Santueneko bidegurutzea-Oxtape.
- 8-Aztarrika Gazte Asanblada: Oxtape-Egurtzegi.
- 9-Udarregi ikastola: Egurtzegi-Aranerrekako zubia.
- 10-Elhuyar: Aranerrekako zubia-Puntapax-Bordaberri-Errekatziki-Kale Nagusia-Eliza.
- 11-Usurbilgo Udala: Eliza-Kale Nagusia-N634-Kaparoz.

Aginaga

- 12-NOAUA! eta Ta Puntu: N634, Kaparoz-Lasao.
- 13-Usurbilgo EHBildu: N634, Lasao-Galardiko gasolindegia.
- 14-Aginagako herria: N634: Galardiko gasolindegia-Mapil.




Korrika gauze iritsiko da gure artera.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL



Iñaki Zabaleta Gorrotxategi filosofia saileko irakaslea da EHU, eta Joxe Azurmendi Katedraren koordinatzailea.

"Humboldttek ere bere garaian eta bere kabuz, Korrika moduko bat egin zuen"

IÑAKI ZABALETA GORROTXATEGI EHU-KO FILOSOFIA SAILEKO IRAKASLEA

Iñaki Zabaletak *Nazioa eta hizkuntza, Humboldtekin solasean* (Jakin) izeneko liburua plazaratu berri du. Datorren asteazkenean, hilak 20, argitalpen honen inguruko hitzaldia eskainiko du Sutegin.

Duela denboratxo bat Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria izeneko liburua argitaratu zenuen. Eta oraingoan protagonista bera duen beste batekin zatokzigu: *Nazioa eta hizkuntza Humboldtren pentsamenduan*. Baina nor da Humboldt hori?

Gure artean nahiko ezaguna da Wilhem von Humboldt, gutxienez izena ez zaigu guztiz arrotza egiten, eta gutxi-asko badakigu bera bi alditan egon zela Euskal Herrian, 1799an eta 1801ean, eta horrez gain dezente idatzi zuela euskaldunen eta euskararen inguruan. Hori bakarrik ez, badakigu ere oso ondo idatzi zuela euskaldunen ohiturei eta hizkuntzari buruz (mirespen puntu bat ere nabaritzen da bere testue-

tan) eta honengatik ere gertukoak egiten zaigu eta sinpatia diogu. Horregatik da ohikoa bera euskaldunen laguna edo adiskidea bezala ezaugarritzea. Baina Humboldt, baita guretzat ere, askoz gehiago da.

Horixe diozu liburuan, Humboldt garrantzitsua dela bestela, hots, bere pentsamendu orokorra balio handikoa dela eta, baita gaur egun ere, oso estimatua dela alderdi eta esparru ezberdinetan. Azalduko al diguzu hau zehatzago? Humboldtren biografia intelektualari begiratzen badiogu, eta hori laburbiltzen saiatzen bagara, hiru hitz nabarmentzen dira: humanismoa, politika eta hizkuntza. Horien inguruko bere ekarpenak aipatzeko mo-

dukoak dira eta, sakon-sakonean, balio unibertsalekoak direla esan dezakegu. Gaurko Alemanian ere asko estimatzen da bere pentsamendua eta, zentzu honetan, adierazgarria 2021eko uztailaren 20an Berlinen inauguratutako gune kultural erraldoiaren izena: *Humboldt Forum*. Autore fa-

"HUMBOLDT BITAN IZAN ZEN EUSKAL HERRIAN ETA DEZENTE IDATZI ZUEN EUSKALDUNEN ETA EUSKARAREN INGURUAN"

matu hau da Euskal Herrira etorri zena eta, zalantzarikgabe, hori bakarrik ere harritzeko moduko da.

Izenburuei bakarrik erreparatu, aurrekoan "Euskal Herria" eta oraingoan "nazioa eta hizkuntza" nabarmentzen zaizkigu. Non dago aldea?

Lehenengoaren helburua Humboldtren euskal ikerketak bere pentsamenduaren baitan azaltzea zen, beti ere garbi edukiz berak etengabe hitz egiten duela euskal nazioaz eta euskal hizkuntza nazionalaz. Baina gauza ez da hor bukatzen. Bere obra oparoan ehundaka aldiz hitz egiten du bestelako nazioez eta hizkuntzez eta, salbuespenik gabe, horiek beti elkarri estu lotuta behatzen eta azaltzen ditu. Hemendik dator bigarren liburuaren abiapuntu gisa planteatzen den oinarritzko galdera: Nola ulertzen eta zergatik uztartzen ditu Humboldtnek nazioa eta hizkuntza bezalako kontzeptuak?

Demagun batek liburuaren mui-na esaldi batean laburtzeko eskatzen dizula. Zer esango zenioke?

Posible da *spoiler* moduko bat egitea eta, labur-labur, nazioa Humboldtentzat hizkuntz komunitatea dela esatea. Baina kontua ez da titular borobil bat botatzea, baizik eta horrek dakarren guztia ulertzea eta horrek suposatzen duen guztia barneratzea. Eta zentzu horretan, aipatzekoa da gainera, Humboldt bera ere ez dela ondorio horretara bapatean iritsi, alderantziz, bera kontu hori guztia pixkanaka-pixkanaka joan da argitzen. Honengatik dauka liburuak ere egitura historiko bat, hain zuzen, horren helburua kontzeptu horiek bere pentsamenduan egin duten bidea azaltzea delako.

Bere bizitzaren etapa guztietan, beraz, Humboldttek arreata handia eskaintzen dio nazioaren eta hizkuntzaren arteko loturari.



"Nazioa eta Hizkuntza: Humboldtekin Korrika" solasaldia eskainiko du datorren astean. Martxoaren 20an asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Zeintzuk dira horren inguruko bere ideia garrantzitsuenak? Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Humboldt, hasteko, garbi du giza-banakoak ez direla irla isolatuak eta, horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaio giza-talde edo nazio ezberdinak zuzenean ezagutzea eta aztertzea. Aldi berean, alemana eta prusiarrak izanik, gainera, ezinbestekoa ikusten du oinarritzko bereizketa bat egitea: gauza bat da hizkuntzarekin loturiko nazioa, eta beste bat konstituzioarekin loturiko estatua. Honen guztiaren ondorioz, azkenik, Humboldt hizkuntzaren esparrura zuzentzen ditu bere ikerketa antropologiko guztiak, eta alde horretatik ondorio honetara iristen da: "Hizkuntza da nazioaren arima".

Batek baino gehiagok esango du hori guztia zaharkitutako zerbait dela, gaurko gizarteak askoz ere anitzagoak direla eta bestelako arazo sozialek lehentasuna eduki behar dutela. Zer esango zenuke horren inguruan?


Guk ez dugu erabakitzen zer den arazo eta zer ez. Guk arazoak aurkitu egiten ditugu eta, alde honetatik, argigarria da zenbat alditan entzuten ditugun adibidez horrelako espresioak: "estaturik gabeko nazioak", "estatu plurinazionalak" eta abar. Zerbaitegatik izango da, ezta? Bada horregatik da garrantzitsua horretan guztian sakontzea eta, ahal den neurrian, oinarrian dagoen nazioa

zer den edo nola ulertu daitekeen argitzea. Zeregin honetan, nire ustez, lagungarri izan da kiguke Humboldtten pentsamendua, besteak beste, bere ideietako askok ez daukatelako iraungitze datarik.

Datorren astean egingo da liburaren aurkezpena, hain zuzen, Korrikaren inguruko ekitaldien baitan. Zergatik? Ze lotura du Humboldt horrelako zerbaitekin? Zer esango luke gaur Korrikari buruz?

Humboldt ere, bere garaian eta bere kabuz, Korrika moduko bat egin zuen. 1801eko udaberrian, hogeita hemezortzi egunetan, hegoaldeko eta iparraldeko hainbat euskal herri bisitatu zituen. Eta bere helburua ez zen bakarrik Euskal Herrian egotea, baizik eta batez ere euskararen herria ezagutzea, hau da, euskaraz hitz egiten duen eta euskaraz bizi den jendea ezagutzea. Hizkuntza ez dago berez apalategietako liburuetan, baizik eta, berak dioen bezala, "herriaren ahoan". Hizkuntza bizi hori zen berak ezagutu nahi zuena eta, horregatik, ziur nago gaur berak ere Korrikan parte hartuko zuela.

"EUSKARA "HERRIAREN AHOAN DA", HUMBOLDTEK ZIOEN BEZALA



Usurbil 1936 elkarteak garrantzitsutzat jotzen du "arbasoen historia berreraiki ahal izatea eta egungo nahiz datozen belaunaldiei transmititu ahal izatea".

Andatzako lubakien indusketa lanak azaleratu dituzte

"Andatzako lubakiak 1936-2024" izenburupean ekoiztiko ikus-entzunezkoa plazaratu du Usurbil 1936 elkarteak. Lanean aritu direnen lekukotzak ere jaso dituzte.

Usurbil 1936 elkarteak "Andatzamendian 2022 eta 2023ko udan buruturiko 1936ko gerrako lubakien berreskurapen arkeologikoa" hizpide izan eta iruditan biltzen duen bideoa ekoitzi du. Usurbilgo oroimen historikoa lantzen diharduen herri bilgunea lubakietan lanean jardundakoen lekukotzak ere jasotzen ditu.

Lubakiak berreskuratu

Usurbil 1936 elkarteko kideetako baten esanetan, horixe izan da hain zuzen bilgunea osatu zutenetik eskuartean izan duten lan-ildoetako bat; lubakiak berreskuratzea alegia. Lehenbizi, eremuon inguruko informazioa bildu zuten, lekukotzekin batera. Jasotako datuekin "Andatzara joan ginen lubakien bila". Arkeologo talde baten laguntzaz egiaztatu ahal izan zituzten lubakiok zeintzuk ziren. Baieztapenaren ondotik, indusketa lanei ekin zieten duela bi urte. Bertatik "material ugari ateratu da", diote

bideoan Usurbil 1936 elkarteko ordezkariak.

Ikasgaia

Indusketa lanetan parte hartu zuten hainbat bolondres herrikideek, udal taldeek edota teknikari talde batek. Haien lekukotzak bildu ditu Usurbilgo oroimen historikoa berreskuratzen ari den elkarteak ikus-entzunezko honetan. Haien ahotan, lubakiak berreskuratzekeo egitasmo honetan parte hartzeak ikasgai moduan egin dien ekarpena nabarmendu dute. Garrantzitsutzat jotzen dute ezkutuan zen iragana azaleratzea, arbasoen historia berreraiki ahal izatea eta egungo nahiz datozen belaunaldiei transmititu ahal izatea.

Youtuben ikusgai

"Andatzako lubakiak 1936-2024" izenburupean grabaturiko ikus-entzunezkoa Youtuben dago ikusgai. Albiste honi atxikia datorren argazkian topatuko duzue bideoari dagokion QR kodea.



Martxoaren 8an Mikel Laboa plazan egindako elkarretaratze jendetsua.



Emakumeen Etxearen irekiera aurreko asanblada egin zuten Martxoaren 8an.

"Guk ez dugu sistema hau zainduko!"

Kafe Tertuliak, Usurbilgo Udalak eta Emakumeen Etxeko talde sustatzaileak deitutako elkarretaratze jendetsua egin zuten Martxoaren 8an Mikel Laboa plazan, "guk ez dugu sistema hau zainduko" aldarripean.

Azken urteotan, Martxoaren 8ak hartutako esanahiaz hausnartu nahi izan dutela jakinarazi zuten iragan ostiralean Mikel Laboa plazan egindako elkarretaratze jendetsuan. 2018 eta 2019ko greba egunak ekarri zituzten gogora, "zaintzaren beharrak bultzatuta, bizitzak erdigunean jartzeko aldarrikapenak indarra" hartu zuten urteak. 2020ko osasun krisialdiak ekarritako zaintza krisia eta gai horri heltzeko nola "konfinamendu erdian Bizitzak Erdigunean Koordinadora Feminista martxan" jarri zuten eta, haren bidez, gai hau askotariko ikuspuntuetatik aztertu, salatu eta "zaintza sistemaren biktimak erdigunera ekartzea exijitu" zuen. Hau guztia, iragan azaroaren 30eko greba orokor feministaren bidez eta egun horri begirako osaturiko herri akordioarekin plazaratu zuten. "Usurbildar feminista ugari atxikitu gara zaintza sistema iraultzeko borrokara eta argiki azaleratu ginen greba egunean. Herritarren aldetik

lortutako parte hartze eta inplikazio mailari esker, zaintzaren auzia baloreari jarri eta borroka indartu genuen". Martxoaren 8 hau ere horretarako baliatu nahi izan dute, "guk ez dugula sistema hau zainduko" inoiz baino ozenago" aldarrikatzeko deitzaileek nabarmendu zuten, baina batez ere, "zaintza sistema publiko-komunitarioa eraikitzeko beharrezko urratsak ematen" segiko dutela iragartzeko.

Emakumeen ahotsei tartea eskaini zitzaion

Egun hau ospatzeko beharrik ez dagoela, feminismoak ez duela borrokatzeko arrazoirik... Mezuon aurrean, "aurtengoan, cisheteropatriarkatuagandik estrukturaliki jasaten ditugun zapalkuntzak aztertu eta balioan jartzeko deia egin genuen. Eta batez ere, borroka feminista zapalkuntza horiek eragindako gaizkiegona kolektibizatzekeo harraminta seguru eta baliagarria izatea nahi dugula azpimarratu genuen".

Horregatik, "Martxoak 8 honi guztion artean esanahia emateko, herritar feministei beren hausnarketa, bizipen zein desira desberdinak adierazteko deia egin genien" galdeketa baten bidez. Mobilizazioan zehar, Martxoaren 8ko zergatiaz eta helburuez, plazaratu nahi zituzten mezuez edota egun horren ondorenaz, hausnartzen zuten emakumeen ahotsei tartea egin zieten.

Martxoaren 8a borroka egun gisa aldarrikatzen ezinbestekotzat jotzen dute herriko emakumeek. Zaintza erdigunean jarri nahi dute, gizonzko borroka horretara batzeko deia egin. Oraindik heldu ez garen berdintasunaz min-

"USURBILDAR FEMINISTA UGARI ATXIKITU GARA ZAINZTA SISTEMA IRAULTZEKO BORROKARA"

tzo dira baita Usurbilgo emakumeak; ahalduntzeaz, emakumeen batasunaz, askotariko emakumez. Lanean eta handik kanpo zaintzen jardunda, "ni norkzaintzen nau?" galdetu zuen emakume batek. Martxoaren 8a "borroka feministan beren espazioa dutela ikustea eta aldarrikatzeko harraminta baliagarria zaiela sentitzea gustatuko litzaidake" zioen beste mezu batek edota "elkar babestuz eta elkarrekin saretuz aldaketak lortu daitezkeela ez ahazteko. Jada lortu diren aurrerapauso guztiak oroitzekeo. Eredu izateko. Eta hau guztia gure egunerokotasunera eramateko" ere baliagarria dela Emakumeen Eguna. Beste desio bat; emakumeak ahaldunduta ikustea, "askatasunean egin beharko luketena egiten beldurrik gabe". Martxoaren 8ak egunerokoan eragitea nahiko luketela adierazi dute, borrokan indartzeko baliagarria izatea.

Irekierara begira

Martxoaren 8a biltzeko ere baliatu dute Usurbilgo jatorri, adin eta eremu askotariko emakumeek. Potxoenean elkartu ziren. Martxoaren 23an, eguerdian irekiko duten Usurbilgo Emakumeen Etxeari lotutako bigarren asanblada egin zuten, hitzordu hori prestatu, funtzionamendua gogorarazi eta osatzen ari diren programazioa partekatatu eta ekarpen berriak jasotzeko.

80 herrikide Lilatoian

Maddi Lorenzo Olasagasti: 0:22:46	Andrea Gómez Soage: 0:36:06
Arantxa Zubizarreta Pellejero: 0:25:53	Laida Gonzalez Ibirriaga: 0:36:31
Noelia Perez Alcalá: 0:29:05	Marina Betegón Ruiz: 0:36:32
Lurdes Salaberria Garmendia: 0:29:47	Olatz Lazkano Portu: 0:36:32
Ehiñe Almandoz Lazkoz: 0:31:34	Olatz Berasategi Ruiz: 0:37:15
Ainhoa Azpiroz Elzendi: 0:31:34	Lur Etxeberria Gurrutxaga: 0:37:16
Elixabete Lazkoz Fernandes: 0:31:34	Carmen Vidal Urdampilleta: 0:37:39
Maidier Porras Aramendi: 0:31:35	Maria Dolores Elkano Iruiria: 0:37:39
Maddi Esnaola Lizaso: 0:31:55	Irati Lasarte Agirre: 0:37:39
Beatriz Irasuegi Salsamendi: 0:32:13	Patricia Fernández Trujillo: 0:37:40
Luisa Rodríguez Moreno: 0:32:14	Maddi Manterola Angulo: 0:37:46
Malen Tapia Aizpuru: 0:32:35	Enara Larrañaga Goenaga: 0:37:46
Aloña Ochotorena Illarramendi: 0:32:35	Maria Davila Zaldua: 0:37:47
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria: 0:33:07	Naiara Ibarгойen Iparraguirre: 0:37:58
Leire Errasti Amiano: 0:33:09	Onintza Gartzia Udabe: 0:38:51
Jessica Rodriguez Afonso: 0:33:52	Leire Zubigaray Portu: 0:39:48
Natali Izagirre Aginaga: 0:34:07	Miren Alcaide Zudaire: 0:39:48
Alazne Arruti Bengoetxea: 0:34:23	Haira Rivero Arrieta: 0:39:48
Nerea Goizueta Garmendia: 0:34:34	Ane Bengoetxea Artetxe: 0:39:48
Amaia Ullate Izagirre: 0:34:35	Nerea Berrotaran Martin: 0:39:48
Kristina Rodriguez Remigio: 0:34:41	Soraya Romo Gallardo: 0:40:03
Irati Goikoetxea Astaburuaga: 0:34:42	Sheila Santamartina Sanchez: 0:40:10
Ana Dominguez Goiburu: 0:34:42	Amaia Artola Azkue: 0:40:11
Irati Arruti Mendizabal: 0:34:42	Sonia García Rodríguez: 0:40:30
Alazne Kastresana Etxeberria: 0:35:25	Oroitz Etxaburu Uranga: 0:40:30



Sailkapen osoa, kronoak.com kontsulta dezakezue. IRUTXULOKO HITZA.

Josune Estella Arranz: 0:40:37	Iratxe Begiristain Oregi: 0:42:39
Amaia Etxeberria Mendizabal: 0:40:59	Placeres Lorenzo Manzano: 0:42:39
Arantxa Udabe Pagola: 0:41:43	Irati Miguel Manterola: 0:42:39
Cristina Agra Bouzas: 0:42:08	Libe Garcia de Eulate Soroa: 0:43:12
Isabel Amo Arias: 0:42:09	Arai Garcia de Eulate Azkonobieta: 0:43:12
Maidier Izagirre Sarasola: 0:42:36	Miren Azkonobieta Mitxelena: 0:43:12
Ana Errasti Ubera: 0:42:37	Garazi Torrealdei Gorriti: 0:45:06
Naiara Fernandez Perez: 0:42:37	Amaia Iglesias Solaberrieta: 0:45:06
Igone Goikoetxea Balda: 0:42:37	Dominique Montoya Sánchez: 0:45:42
Agurtzane Alkorta Urdampilleta: 0:42:37	Olga Vinogradova: 0:45:42
Arantxa Usaralde Aranzadi: 0:42:37	Ibtissam Chacha: 0:45:42
Elixabete Udabe Pagola: 0:42:38	Itxaro Sukia Mendizabal: 0:50:28
Miren Aizpea Unsain Izeta: 0:42:38	Diana Lobo Jiménez: 0:52:15
Itziar Dorransoro Ariz: 0:42:38	
Maialen Sagarna Aranburu: 0:42:38	Zubieta
Marian Sola Lizarrondo: 0:42:39	Alazne Olaizola Iparragirre: 0:43:11

BIRZIKLATUZ, IRABAZTEN DUGU

JOLASTU, PARTE HARTU ETA IRABAZI










Gaikako
bilketaren
alde



Haur eskolari buruzko informazio bilera antolatatu zuen udal gobernu taldeak iragan astean Sutegin.

Haur eskola sendotzeko urrats berriak

Udal gobernu taldeak deitutako haur eskolari buruzko informazio bilera egin zuten iragan astean Sutegin. Usurbilgo Udalak lizitazio bidez kudeatzen jarraituko du haur eskola eta horretaz gain, herri zerbitzu hau sendotzeko pauso berriak aurkeztu ditu.

Udal titulartasuneko izaten segiko du Usurbilgo haur eskolak, 0-3 ziklo osoa hartzen segiko du bere baitan eta "herrikeria kudeatuko da", iragarri zuen udal gobernu taldeak gai honi buruz iragan astean Sutegin antolatatu zuen informazio bileran.

Iaz, Eusko Jaurlaritzak Partzuergoko haur eskolen doakotasuna iragarri eta Usurbilgoa nahiz udal titulartasuneko beste hamabi haur eskola doakotasun horretatik at utzi ostean egindako hausnarketa prozesuan hartutako erabakia izan da honako hau. Tarte hau baliatu nahi izan dute, gai honi lotutako "erpin guztiei batera" heltzeko; kalitatezko haur eskola izaten segi nahi dute, doakotasunerantz ekingo bidean "atzera ez egitea", eta "ekonomikoki jasagarria

izango den zerbitzua izatea", beti ere, "haur eskolan 22 urteotan landu den proiektu pedagogikoa eta egindako ibilbidea" aintzat hartuta.

Bost urterako

Lizitazio bidez kudeatuko du haur eskola Usurbilgo Udalak. Egungoa, hiru urtekoa, irailean leian amaituko da. Lizitazio berria, aldiz, bost urtekoa izango da eta "emakida kontratutik zerbitzu kontratu izate

"HAUR ESKOLAN 22 URTEOTAN LANDU DEN PROIEKTU PEDAGOGIKOA" KONTUAN HARTU DUTE

tera" igaroko da. "Oso aldaketa esanguratsua", Usurbilgo EHBilduren esanetan. Izan ere, "arrikeriak Udalak bere gain hartzen ditu, ez lizitatzailerak". Bada beste aldaketarik ere; "kuotak udaletik kobratuko dira" aurrerantzean. Lizitazio deialdi berri honen oinarriak, apirilaren 11ko ezohiko osoko bilkuran onartu asmo dituzte, "iraileko prest egoteko". Horrekin batera, "araudi bat ere ezarri

"JAURLARITZAK ERABAKITAKO DOAKOTASUN UNIBERTSALAK BAZTERTZEN GAITU"

dute, plaza kopurua, ratioak, zerbitzuaren ordutegia, kuoten zenbatekoa, matrikulazioa eta gobernantza-lankidetzaren markoa ezartzeko".

Araudi berrian, gehienez 92 haurrentzako lekua egongo da haur eskolan. "Lehen bezala, udalaren ekarpen ekonomikoa matrikulatutako haur kopuruaren arabera izango da, eta bere kalkuluen arabera, 216.000 eta 268.000 arteko ekarpena egitea egokitu zaio", gaineratu dute Udaletik. Eskatutako zerbitzuaren arabera, 40 edo 60 euroko kuota ordaindu behar dute gurasoek. Kuota horretatik kanpo geratuko da jangela zerbitzua, lizitatzailerak bermatu behar dute; "117 euro bazkariagatik eta 20 euro meriendagatik, gehienez ere". Bistan denez, haur eskola lehen baino merkeagoa bai baina ez da erabat doakoa izango. Udalak gaurkoz ezin du halakorik eskaini, baina %50-90 arteko hobariak jaso daitezkeela gogorarazi zuten.

"Erabaki hura hasieratik salatu izan dugu"

Aipatu moduan, udal gobernu taldearen neurri guztiok Eusko Jaurlaritzak iaz hartutako erabakiaren ondorengotik datoz. Duela urtebete Partzuergoko haur eskolak doakoak izango zirela iragarri zuen Hezkuntza Sailak, ikasurte honetatik bertatik aurrera. Denak, udal titulartasunekoak, tartean, Usurbilgoa, izan ezik. "Erabaki hura hasieratik salatu izan dugu", gogorarazi zuten iragan aste Suteigiko bileran. Izan ere, EHBilduko udal ordezkarien esanetan, "Jaurlaritzak erabakitako doakotasun unibertsaletik baztertzen gaitu" eta horrek, ondorioz, "inguruko herrikeriko diskriminazio egoerak" sortzea dakar.

Erabaki hura salatzearekin batera, kezka hartu zuten, "Ikastolatik ere ezinezona adierazten zaigu", oroitu zuen Sutegin udal gobernu taldeak,

besteak beste, zerbitzu honen beharra zutenek "inguruko haur eskoletara joateko beldurra". Informazio eta bilera eske ate joka hasi zirela oroitzen zuten udal gobernu taldeetik, tartean noski, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarena. Baina ohartarazi zuten, "ez da inoiz zabaldu". Tes-tuinguru berriarekin ziurgabetasuna nagusitu zela gogoratu zuten.

%62 udalaren gain

Ordura arte, hiru finantziario iturri zituen Usurbilgo haur eskolak: erdira heltzen ez zen Eusko Jaurlaritzarena, familiariek hileroko kuoten bidez eginiko %33ko ekarpena, eta, azkenik, Udaletik bideraturiko %17,5eko finantziarioa. Konponbiderik bazuen auziak udal gobernu taldearen esanetan; Eusko Jaurlaritzatik "aurrekontua bikoiztu izan balute, arazoa konponduta" egongo zen. Irailean, EHBilduk sustaturiko akordio politikoa erdietsi zuten Eusko Legebiltzarrean; horren bidez, udal titulartasuneko haur eskolak doakoak izateko konpromisoa hartu zuten. Baina gaurkoz, ez da egikaritu.

Egoeraren salaketa udal gobernu taldeak osoko bilkurara ere eramane zuten iazko martxoan. Apirilean urtebeterako haur eskolako kuoten %62a Udalak bere gain hartzea erabaki zuten. Hala, aurtengo ikasturtean, iazkoan baino 120.000 euro gehiago bideratu ditu Udalak Haur Eskolara, guztira 200.000 euro. Erabaki hark ordenantza fiskalak egokitu eta lizitazio berri bat landu beharra eragin zuen. Tarte horretan, haur eskolaren etorkizunari heltzeko hausnarketa prozesu bat ere bideratu nahi zuten. Urte amaierarako erabaki bat hartzeko asmoa agertu zuten, baina "ez dugu hitza bete" zioten Sutegiko bileran. Hilabete honetara arte atzeratu dute erabakiaren jakinarazpena; baina



Haur eskola berriko dutela iragarri zuten udal gobernu taldeak Sutegin.

denbora tarte honetan, "ez gara geldirik egon". Prozesu honetan, Udarregi ikastolarekin eta eragile edota norbanako gehiagorekin hartuemanetan izan direla berri eman zuten, ekarpenak biltzen aritu direla baina ohartarazi zuten, "bizi-bizi dagoen proiektua da, ontzen jarraitzea da helburua".

Hilabeteotan hainbat bide jorratzea aztertzen aritu dira; horietako bat, Haur Eskola Partzuergoan sartzea. Baina aukera hau baztertu behar izan dute. Izan ere, ez zuten bermerik urrats hori eman zezakeen, lan taldeari eutsiko zioten eta udal gobernu taldearentzat, "marra gorriak" bazituzten bide honetan; horiek haur eskolako langileak ziren hain zuzen. Horrez gain, Udalak instalazioak jarri eta mantenu kostuak bere gain hartu beharko zituzten.

"BIZI-BIZI DAGOEN PROIEKTUA DA HAUR ESKOLAKOA, ONTZEN JARRAITZEA DA HELBURUA"

Eraikina berritzera

Haur Eskolari buruz iragan astean Sutegin eginiko informazio bileran udal gobernu taldeak iragarri zuten, proiektua definitzen aritu ostean, Haur Eskolako eraikina eraberritzera doaz. Eskuhartzea faseka egingo dute, "zerbitzua eten gabe". Zehaztu zuten, gainera, lehenbizi 0-1 etapa izango dute lehentasun. Eraberritze lanotarako 300.000 euro gorde dituzte 2024ko udal aurrekontuetan. "Eraikinari IT azterketa ere egingo diote, kanpo-elementuak nola dauden aztertzeko", iragarri dute udal gobernu taldeetik. Gaineratu zuten, "Ugartondoko obrak amaitu zain gara, alda-pa konpontzeko". Lizitazioa kaleratzeaz dutela aurreratu zuten.

Haur Eskolak berritzeko beharra du, lehenago egin nahi zituzten lanok. "Izatez, erai-

HAUR ESKOLA EGUNGO KOKAGUNEAN MANTENTZEAREN ALDEKOAK DIRELA BERRETSI ZUTEN

kina berritzeko bi aurrekontu zeuzkan udalak iazko urtarrierako, 15.000 euroko partida batez gain, baina Partzuergoko haur eskolen doakotasunaren iragarpenak eta EAEko Hezkuntza Lege berriaren negoziatio testuinguruak eraikinaren auzia gelditzea ekarri zuten, ziurgabetasun giroa sortuz. Horren ordez, doakotasunerako bidean urratsak egiten hasteko lanei ekin zuten udalak".

Kokagunea

Haur Eskolako guraso talde batek egungo eraikina Udarregi ikastolako gainerako eraikinetara hurbiltzeko eginiko eskaerari ere erantzun nahi izan zioten udal gobernu taldeetik. Haur eskola egungo kokagunean mantentzearen aldekoak direla berretsi zuten Sutegiko bileran, batetik, "zerbitzuak deszentralizatzearen" aldekoak direlako. "Helburua, zerbitzuak auzoetara zabaltzea da" eta ondorioz, herritar gehiagoren eskura jartzea. Udal gobernu taldeetik adierazi zuten, herri erdigunean dago haur eskola eta are nabarmenagoa izango da etorkizunean. Izan ere, "Usurbil ipar-ekialdera haziko da", udal zerbitzu honek duen kokagunerantz. Horrez gain, haur eskolaren ingurunearen eraldaketaz ohartarazi zuten. Gogoan izan, bere parean, uztailean ireki zuten Egurtze-gi zaintzadun etxebizitzaren auzunea. Martxoaren 23an irekiko dute, bestalde, handik hurbil, Usurbilgo Emakumeen Etxea eta kalezartarren udal ekipamendua bateratuko dituen Pelaiotena berriua. Azkenik, Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa ere irekitzeaz dute. Haur Eskolarekin batera, lau egitasmoon arteko sinergiak batzearen aldeko asmoa agertu dute udal gobernu taldeetik, interesgarritzat jotzen dute, "mugikortasun aktiboa eta belaunaldi artekootasuna sustatzeko".



Idoia Torregarai kazetari eta umoregileak eta Patri Huarte 'Zaldieroa' marrazkilariak elkarlanean osatu dute *Mikroipuinak* (Elkar) liburua.

"Mikroipuinak liburu atsegin bat da. Moñoñoa, oparitzeko modukoa"

Idoia Torregarai bere lehen liburua aurkeztu du. *Mikroipuinak* (Elkar) izenekoan 150 ipuin labur jaso ditu eta horietako asko Patxi Huarte 'Zaldieroa' marrazkilariak ilustratu ditu. "Zorroztasuna, irudimena, ezustea eta umorea dira istorio txiki baina piperdun hauen ezaugarriak, Zaldieroaren esku fin eta zoroak jantziak eta edertuak", liburuaren kontrazalak dioen moduan.

"Kazetaritza ikasi nuen, idaztetik bizi nahi nuelako. Aberrasteko asmorik ez nuen eta hori, egia esan, ez da errealtate bihurtu". Umoregile izateaz gain, Idoia Torregarai UEUko komunikazio arduraduna da eta NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakaria. Saltsa gehiagotan ere aritu da urteotan. Gazte-gaztetatik beraz, asko idatzi du: "elkarrizketak, prentsa-oharrak, bakarrizketak, gidoiak, podcastak, txostenak,... Baina libururik ez". Aurreko astean Donostian aurkeztu zuen *Mikroipuinak* (Elkar) liburuari esker, zor hori kitatu duela esan

daiteke. Patxi Huarte 'Zaldieroa' marrazkilariarekin batera osatu duen hauxe da hortaz, bere lehen literatura-argitalpena. "Horregatik, gaurkoa poza bikoitza da", esan zuen Torregarai hedabideen aurreko agerraldian.

"TWITTERREK IHESBIDE BAT ESKAINI ZIDAN NIRE BURUTAZIOAK PLAZARATZEKO GARAIAN"

Txio-herriko bi izen handi

Twitterren magiarri esker hasi ziren bien sormen-lanak txirikordatzen. Sare sozial hau hain zuzen, pizgarri ederra izan da usurbildar umoregilearentzat. Duela dozena bat urte hasi zen bertan idazten.

"ZALDIEROAK NIRE TXIOAK MARRAZTEAN, HALAKO KATEGORIA BAT EMAN ZIDAN TWITTERREN"

"Oso toki interesgarria topatu nuen. Komunitate bat, 'Txio-herria' bezala ere ezaguna dena. Garai hartan 140 karakteretan zegoen muga eta nire sormena bideratzeko toki egokia aurkitu nuen". Idoia Torregarai prentsaurreko bidez azaldu zuenez, "Twitterrek halako ihesbide bat ematen zidan nire burutazioak plazaratzeko". Kazetaria izanik gainera, "mundua titularretan ikusteko joerak asko lagundu zidan istorio txikiak idazteko garaian".

Urteotan, txio euskarriak joko asko eman dio Torregarairi. Eta jende asko ezagutzeko bidea ere bai. Tartean, bere umore kolpe askoren marrazkilaria bilakatuko zena, Zaldieroa. "Nik aspalditik ezagutzen nuen, Egunkariaren garaiko zintetatik, baina berak ez ninduen ni ezagutzen. Eta Twitterri esker ezagutu genuen elkar. Gerora, nire txio batzuk marrazten hasi zen eta niretzat ohore handia zen. Berak nire txioak marraztea bazen hautatua izatea, halako kategoria bat ematen zidan Twitterren". Partekatutako idatziek eta

zintek ekarri dute, hein handi batean, *Mikroipuinak* (Elkar) liburuaren argitaratzea. Mundu birtualean sortutakoa, paperean islatu eta betikotzeko gogoia.

Gertuko gaiak

Liburuan, guztira, 150 mikroipuin batu dituzte. Gaiak gertukoak dira, egunerokotasunari lotuta daudenak. "Janarekin adibidez, konturatu naiz badudala halako obsesio errepikakor bat", azaldu zuen Idoiak Donostian eginiko agerraldian. Bere errepertorioan klasikoak diren osagaiak ez dira liburuan falta. "Kroketek agertu behar zuten, eta maitasunari buruzkoak edo poltsa beroaren gainean idatzitakoak ere bai...". Usurbilgo umore-gileak nabarmendu zuenez, "momentuko txinpartak dira gehienak baina badira su baxujeagoan sortutakoak ere. Baina orokorrean, bulkadei jarraituz idatzitakoak dira".



Mikroipuinak liburuko gaiak gertukoak dira, egunerokotasunari lotuta daudenak.

Mamia bezain berezia da azala. Liburuaren formatua ere ezohikoa da, poltsikokoaren neurritik gertu dagoena. "Liburu atsegin bat da. Moñoñoa, oparitzeko modukoa".

Txioak, komunitatearen izkribuen pare

Patxi Huarte 'Zaldieroa' marrazkilarientzat ere, Twitter inspirazio iturri handi bat da. "Duela urte batzuk, Txiolan-

diako izkribuak komunitatearen izkribuak balira bezala erabiltzen hasi nintzen. Ez

"NIK ERE GUSTUKO DUT NIRE ZINTETAN GAUZA MOTZAK BOTATZEA"

PATXI HUARTE 'ZALDIEROA'

Idoiarenak bakarrik". Txio-landiako mezuekin osatutako zinta horiek asteartetan plazaratzen ditu Berrian. Eta horietako askok eta askok, Idoia Torregaraireren idatzi bat dute oinarrian. Bien arteko konplizitate agerikoa da, biek antzeko estiloa gustuko dutelako. "Nik ere gustuko dut gauza motzak botatzea, nik idatzitako zintetan ere agerikoa da", Zaldieroren hitzak dira hauek. "*Mikroipuinak* liburua eskuarte hartzen baduzue, ikusiko duzue 150 mikro-ipuin batu ditugula baina ipuin denek ez dute irudi bat. Marrazki gabeko mikro-ipuin horietan, animatuko nuke jendea bere marrazkiak egin ditzan".

Elkar argitaletxearekin plazaratu duten *Mikroipuinak* libururako hautatu duten tipografia ere ez da edozein. "Albert Montey's marrazkilariak berak propio asmatu zuena baliatu dugu liburuan".

Soinurbil, azken traka

Martxoak 15, ostirala

• 19:00 Erromintxelak, 2021ean Arrasaten sortutako swing taldea Mikel Laboa plazan (euria balitz, frontoian).

Martxoak 16, larunbata

• 11:30 "Ene Kantak" haurrentzako saioa Zubietako frontoian.
• Sarrerak: 4 euro aurrez esku-ragarri usurbilkultura.eus-en.

Martxoak 16, larunbata

• 19:00 Landarbaso Abesbatza Salvatore Elizan.
• Bakarlarria: Erik Carrero.
Perkusioa: Jon Padilla.
Pianoa: Miren Gabirondo.
Zuzendaria: Iñaki Tolaretxipi.

Martxoak 17, igandea

• 12:00 Andoaingo Musika Banda kalean, 13:00ean frontoian.

Martxoak 21, osteguna

• 18:30 Zumarte Musika Eskolako ikasleen kontzertua Azpeitiko San Agustin Kultur-gunean.

• Zehaztasunak: "Azpeitiko Musika Eskolak gonbidatuta, Zumarte Musika Eskolako ikasleak Azpeitira joango dira musika-trukea egitera. Zumarte Musika Eskolako ikasleek urtean zehar eskolako taldeetan lantzen dutena aurkeztuko dute Azpeitiko San Agustinen".

Antolatzaileak:


Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak:

Usurbilgo Salvatore Parrokia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxabank.

"Olagarrua" antzezlan

Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan ondutako antzezlan eskainiko dute martxoaren 24an 18:30etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak aurrez eskura daitezke 5 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. "Errudunak gara? Errugabeak? Zerk egiten gaitu errudun? edo nork? Gure errua, gure errua da? Ba al daude erru txiki eta handiak? Erru kuttunak askatu nahi ditugu? Erru potoloak kiloka neurtu daitezke? Oholtza bat. Olagarro bat. Hiru emakume. Hiru bihotz erruarekin jolasean, olagarroaren eta gizakien munduak nahastuz, erroak eta erruak korapilatuz, itsas azpian eta lur gainean biziraun nahian. Hiru aktore erruak astindu nahian, olagarroak haren zortzi erroak astintzen dituen moduan. Obra



Maitane Perez, Nerea Arriola eta Olatz Beobide, obrako aktoreak.

posible asko obra bakar batean, poetika ezberdinetan mimetizatutako direnak, zuloetan sartutako direnak, barrearen bidez arnasa ekarriko dutenak eta behar izanez gero, tinta beltza jaurtiko dutenak, bizirauteko. Oholtza bat. Olagarro bat. Hiru emakume. Eta askoz gehiago". Maitane Perez, Nerea Arriola eta Olatz Beobidek parte hartuko dute.



Erromintxelak talde arrasatearraren aurkezpen argazkia.

"Kanta dantzagarriak eta dibertigarriak egitea da gure helburua"

JOKIN VITORIA ERROMINTXELAK TALDEKO MUSIKARIA

Erromintxelak Arrasateko swing taldea Mikel Laboa plazan oholzaratuko da ostiralean arratsaldeko 19etatik aurrera. Euria egingo balu, frontoian emango lukete kontzertua.

Swing taldea zarete. Euskarazko abestiak eta inprobisazioan oinarritutako ikuskizuna eskaintzen duzue.

Emanaldi berria estreinatuko dugu Usurbilen eta irrikitan gaude. Bertan, euskaraz egindako kanta propio berriak joko ditugu eta swing garaiko kanta ezagunak entzuteko aukera ere egongo da.

Swing eta gipsy musika egiten duzue.

Gure helburua kanta dantzagarriak eta dibertigarriak egitea da eta euskaraz, noski. Hasiera batean, taldea hirukote bezala (2 gitarra eta kontrabaxua) hasi zen gipsy swing estiloan oinarrituta. Gerora,

washboard, bateria eta haizezko instrumentu bat gehitzean, dantzagarriago bihurtu zen eta swingetik gertuago dago. Hori bai, gipsy swing kutsuarekin.

Swing musikak Euskal Herrian arrakasta duela esango zenukete?

100 urte dituen musika da eta gaur egun bizirik jarraitzen du. Musika modernoaren sustriak dira. Euskal Herrian, estilo hau jorratzen duen talderen bat badago, baina ez asko egia esanda. Dagoen hutsunea ikusita, euskaraz egindako swingaren alde egin dugu apustu. Hitzei ere garrantzia handia ematen diegu, euskal olerkien moldaketak

eginez. Bestalde, lindy hop dantzatzeko duen geroz eta jende gehiago dago, eta horrek asko pozten gaitu. Behin baino gehiagotan parte hartu izan dugu swing dantza eskolekin arrakasta handiz.

Musika irakasleak zarete taldekideak. Nolatan sortu zenuten

"SWING-A 100 URTE DITUEN MUSIKA ESTILOA DA ETA GAUR EGUN BIZIRIK JARRAITZEN DU"

proiektu hau? Kontserbatorioan ezagutu zenuten elkar?

Denok ditugu Goi Mailako Jazz ikasketak eta betiko lagunak gara. Swing eta euskaraz kantu hutsunea zegoela ikusita, hura jotzeko beharra sortu zitzaigun. Gure herrian, Arrasaten, beti egon da musikarako zaletasuna eta musikari zein talde on asko daude: Punk, Oi!, Rock eta Metal estiloak gehienak. Honetan, lehenak eta bakarrak gara. Zaila ikusten dugu etorkizun batean guk egindako bidea hurrengo belaunaldiak jarraitzea, baina zeinek daki. Egundokoa litzateke!

Berriki, 2023ko abenduan, Kaki Arkarazo herritarren estudioan lehen singlea eta bideoklip bat grabatu zenituzten.

Bai, jada gure lehen singlea entzungai dago Spotifyn eta gure bigarren bideoklipa ikusgai YouTuben. Oso pozik gaude emaitzarekin eta ilusio handiz, Kaki Arkarazoren herrian berarekin egindako lana aurkezteko. Herritarren gustukoa izatea espero dugu.

Zertan da proiektua? Abesti berriak egiten ari zarete, kontzertuetan zentratuta zaudete?

Bai, orain, abesti berriei azken ukituak ematen ari gara, datozen kontzertuetan jotzeko. Jadanik kontzertu batzuk lotu ditugu. Usurbilgo kontzertuaz aparte, Katapulta Tour Gipuzkoan hautatu gaituzte. Programa horrek Gipuzkoan garrantzia handia dauka. Urtean 4 kontzertu 4 eszenatoki ezberdinetan emateko aukeraz aparte, entsegu lokala eta formakuntza ikastaroak jasoko ditugu. Erakusleihen aparta dela uste dugu eta oso pozik gaude bertan egoteaz. Programa honetako lehen kontzertua, maiatzaren 12an Pasaiaiko Itsas Festibalean izango da eta hurrengo, maiatzaren 25ean Tabakalerako Kutxa Kultur Kluban Donkey Ridersekin batera. Gogotsu gaude!



Ene Kantak ikuskizuna larunbat honetan ikus ahal izango dugu eguerdiko 11:30ean, Zubietako frontoian.

"Betiko abestiak oholtzaratuko ditugu, ezagunenak"

ENE KANTAK IKUSKIZUNEN AKTOREAK

Martxoaren 16an Ene Kantak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du Zubietako frontoian. Soinurbilen baitan antolatutako ekitaldia haurrei zuzendutakoa da.

Ene Kantak euskarazko haur kantak egiten dituen talde-ekimena da, Nafarroan sortua. Euskararen erabilera zabaltzea dute helburu, eta, horretarako, abesti itsaskorak, freskoak eta dantzagarriak konposatzen dituzte, bai EITB3rako, bai ikuskizunetarako. Horrez gain, koreografia errazak prestatzen dituzte, txikiak imitatu eta ongi jarraitu ditzaten. "Dantzan" ikuskizun berezian, "Ene kantak"eko abestirik dantzagarrienak eta ospetsuenak eraman-go dituzte Zubietako oholtzara. Bertan, Nereak eta Eneko gidatuta, eta pantailan agertuko diren bideoen laguntzarekin, ipuin edo istorio bat kontatuko dute abesti guztiak

uztatu eta dantzaldiari forma emanaz. Saioan zehar, publikoak ez du atsedenerako tarterik izango. Denak dantzan jarriko dituzte Zubietako frontoian.

NOAUA! Ene Kantak Eitb3ren bidez ezagutuko dute askok. Ikuskizunetan ere telebistan ikus daitekeen formatuan lan egiten duzue?

Telebistan hasieran agertzen ziren pertsona guztiak aterako dira: Nerea, Eneko, Astonauta eta Satorjator. Azken urteetan telebistan atera diren horietatik bi, ordea, ez dira egongo: Mintxo eta Argi. Ikuskizunean azken horiek ez, baina gainontzekoak ikusteko aukera izango da. Hasierako ikuskizunetan

sortutako pertsonaia guztiez gozatzeko aukera paregabea.

Gonbidatuak izaten dituzue eta abesti askotan partehartu dute ezagun askok. Ikuskizuna ikustera hurbiltzen denak zein abesti entzuteko aukera izango du?

Ikuskizun honetan abesti ezagunenak aterako dira koreo-

"HASIERAKO PERTSONAIK ATERAKO DIRA: NEREA, ENEKO, ASTONAUTA ETA SATORJATOR"

grafiarekin eta abesti berrien bat ere izango da EITBren estreinatuko ditugunak. Betiko abestiak eta zaharrenetakoak aterako dira; orokorrean, ezagunenak.

Youtuben aritu zineten telebistarako jauzia eman aurretik. Proiektu honen sorrera Youtuben izan zen edo nola hasi zineten?

Haurrentzako euskarazko proiektuen falta zegoela ikusita, behar horri tiraka, disko bat grabatu genuen jende ezagunaren partehartzearekin. Hala egingenion proiektu honi. Bideoen bereizgarria famatuen bat sartzea zen: kultur gileak, kirolariak... denetarikoa pertsonak batu ziren proiektura. Disko horretatik, ikuskizun bat sortu zen eta ondoren, egingako disko bakoitzetik ikuskizun bat sortu dugu. Behin martxa hori hartuta, EITBren deia jaso genuen telebistako programa bat egiteko eta gaur arte. Horixe da gure azken 13-14 urtetako bilakaera. Nafarroatik hasitako proiektua da.

Eitb3ko proiektua amaitzean da, orain zein bidetatik jarraituko duzue?

Azken programa martxoaren 23an izango da. Bost urte izan dira EITBren elkarlanean, eta orain, ibilbidean ikuskizunekin jarraituko dugu. Proiektuari osotasuna eman nahi diogu orain. Haurrentzako ipuinen edizio lanetan murgilduta gabiltza azken aldia eta horri bultzada eman nahi diogu. Ikuskizunari ere indarra eman nahi diogu. Urriatik aurrera ikuskizun berri bat estreinatuko dugu eta horrekin ere ilusioz ari gara lanean. Urte eta erdian behin estreinatuko ohi dugu ikuskizuna, eta azkena maiatzean izango da denboraldi honetako. Ondoren, hilabete batzuetako atsedena hartuko dugu eta indarberrituta helduko diogu ikuskizun berriari urrian. Liburua, ikuskizuna eta bestelakoak bateratzeko prozesu betean sartuta gaude.



Behin-behinean hartutako erabaki hau jendaurrean jarriko da 30 egunez.

Orbeldiko indarretxea eta presa deskatalogatzea erabaki du udalbatzak

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuale hasieraz onartzea erabaki zuen aho batez udalbatzak, "ondare etnografikoko elementuen artean jasotako 'Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)' deskatalogatzeko xedearekin".

Behin-behinean hartutako erabaki hau jendaurrean jarri da 30 egunez, alegazioak aurkezteko, erabakia iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean martxoaren 11n argitaratzearekin batera. Tarte horretan, gainera, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailei txostena eskatu die Udalak.

Erabaki honen bidez, orain arte Orbeldiko presari eta indarretxeari zuten babes etnografikoa kendu egingo zaie, udal gobernu taldetik nabarmendu zuten, etorkizunean "presa eraitsi behar bada, deskatalogatuta uzteko".

Ur-bizien kanala

Jakina denez, Gipuzkoako Piraguismo Federazioak urbizien

kanalaren proiektua sustatu nahi du. Gogoan izan, Udaltetik azaldu dutenez, 2019. urte amaieran erregistratu zuten proiektua; lurzoru urbanizazinezko plan berezia eta ingurumen txosten estrategikoa. Urtebete beranduago, plan berezia hasieraz onartu zuen Udalak. 2021eko otsailean jendaurrean jarri zuten plan hau eta tarte horretan ez zen alegaziorik jaso. "Plan Bereziaren xedea Orbeldin ibaiari lotutako kirol ekipamendu bat ezartzeko hirigintza parametroak zehaztea eta Orbeldiko presa inguruko ingurumen-hobekuntza da. Plan Bereziak kanalaren gainean kokatzen den zentralaren edo indarretxearen aurriak kentzea eta kanala zena kirol erabilerara-

ko egokitzea proposatzen du, bertan ur-biziko kanal bat sortuz. Zentralaren aurriak kanalaren gainean kokatzen direnez, ez dira bateragarriak aurrien mantentzea eta kanala kirol erabilerarako birmoldatzea. Horregatik, kirol ekipamenduak behar dituen zerbitzuak (ontzien biltegia, aldagelak, komunak, harrera etab) kanaletik kanpo koka-

"INDARRETXEAREN ERAIKINA EGOERA TXARREAN DA ETA EZ DU ELEMENTU ARKITEKTONIKO GARRANTZITSURIK"

tuko den zerbitzu-erakin berri bat egitea proposatzen da".

Urte hartan, 2021eko apirilean, "Eusko Jaurlaritzako EAeko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zen lurzoru urbanizazinezko Plan Berezia tramitatzeke espediente eta txostena eskatu zitzaion" eta bertan aldeko txostena eman zuen.

Iazko abuztuan, Gipuzkoako Foru Aldundian interes publikokotzat jo zuen proiektu hau. Eta urrats honen ondotik dator deskatalogazioaren planteamendua. "Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean egindako ohararazpena kontutan hartuta, Usurbilgo Udalak Orbeldiko presa eta indarretxearen balio kultural eta etnografikoa identifikatzeko txostena eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari".

Indarretxea hondatua, presa ez Aranzadiren txostenak dio, "gaur egun indarretxearen eraikina oso egoera hondatuan aurkitzen dela eta ez duela elementu arkitektoniko garrantzitsurik. Halaber, bertan zeuden makinak desagertuta eta/edo hondatutako hondakinak direla. Aldiz, zentralari lotutako presa eta deribazio-kanala kontserbazio-egoe-
ra onean daudela dio eta ingeniari hidrauliko industrialari lotutako elementu arkitektoniko garrantzitsuak direla".

Eusko Jaurlaritzaren ohararazpena eta Aranzadiren txostena kontuan izanda, eta horrekin batera, "ingurumen ikuspegitik, presa horiek ibaiaren ekosistemarako oztopo badirela" kontuan izanda, udalbatzak hasieraz onartu berri duen aldaketa bideratzeko tramitazioari ekin zion.

Udal gobernu taldetik due-la bi aste osoko bilkuran, ur bizien kanalaren tramitazio prozesuak oraindik luze joko du, "gaurkoz ez dakigu zenbat luzatuko den".

Txokoaldeko obren eraginak murrizteko hitzarmena adostu dute Udalak eta ETS-k

Euskal Trenbide Sareak eraiki nahi duen tunelaren lanen harira, obra hauen eragina murrizteko hitzarmena adostu dute Udalak eta ETS-k. Udalbatzak aho bateko onarpenera eman zion, otsailaren 29ko osoko bilkuran.

"Txokoalderekiko begirunea" eskatu zuten 2022ko abendu hasieran bertako bizilagunek eta Udalak trenbide ondoan, auzorako sarbidean egin zuten agerraldi bateratuan. Elkarlanean landutako hobekuntza sorta aurkeztu nahi izan zioten, Euskal Trenbide Sareak tren zerbitzuen maiztasuna indartzeko, handik hurbil, Olabarieta-Illunbe artean egin asmo duten 1,2 kilometroko tunelaren proiektuari.

Helburua bikoitza da; obrek ingurumenean eta txokoalderaren egunerokoan izango duten eragina gutxitzea. Ekarpenok aintzat hartzea eskatu zioten Eusko Trenbide Sareari.

Alegazio batzuei bide emango diete

Bide horretan, urrats bat eman du orain Usurbilgo Udalak, Euskal Trenbide Sarearekin hitzarmena landu du eta lankidetzaren hitzarmen hau onartzea erabaki zuen udalbatzak aho batez, iragan otsailaren 29an eginiko osoko bilkuran. Erabaki horren baitan, alkateari Udalaren izenean hitzarmen hau izenpentzeko ahalmena eman zaio.

Erabaki hau hartu aurretik, udal gobernu taldeetik azaldu zuten, Txokoaldeko bizilagunek eta Udalak Euskal Trenbide Sareari eginiko "alegazio batzuk aintzat hartu dituela" eta "horiei bide emateko hitzarmena da" hain zuzen udalbatzak duela bi aste onarturikoa.

Onarturiko eskaeretakoa bat, Txokoaldera sartu nahiz han-



Txokoaldeko bizilagunek eta Udalak Euskal Trenbide Sareari eginiko "alegazio batzuk aintzat hartu dira".

dik irteteko komunikazio bide nagusia den Oria gaineko Altonazko zubia birgaitzeko konpromisoa jasoa du aipatu lankidetzaren hitzarmenak. 1,4 milioi euroko obra izango da, nagusiki ETS-k finantzatu du. Udalak 300.000 euroko ekarpena egingo du, 100.000 euro hiru urteetan. Alkateak azaldu zuenez, "zubi berria 30 zentimetro igo eta zabaldu" egingo dute. Hartara, etorkizunean pasabide berri horretan ibili ahalko dira erostasun handiagoz, ibilgailuak, oinezkoak edota txirindulariak. Zazpi bat hilabete iraungo dute obrek. "Baina ez dakigu lanak noiz hasiko diren" eta, honenbestez, horrek planifikatzea zailtzen du. Eragin ditzakeen eragozpenen aurrean, halere, aztertzen ari dira zer baliabide eskaini.

Obretarako bidea

Bestalde, tunela eraikitze obren eremura heltzeko, hitzarmenaren arabera, "bidea aldatzeko eskatu izan da Txo-

koaldetik bertara doan egungo herri bidea 5m arte zabaltea jasotzen baita eta horrek derrigor inguru txikitzea ekarriko duelako. Aipatu behar da udalak bide alternatibo bat proposatu zuela, Txokoalden trenbidea gurutzatu aurretik eta aparkalekutik bertatik, trenbidearen paralelo eta erriberatik bidea egitea (bide batez, etorkizuneko Foru Aldundiko bidegorrirako probestu zitekeena) baina ETS-kez zuten onartu. Hori ezean, bidea bere osotasunean 5 m ez zabalzea onartu da eta ingurura hobeto egokituko den soluzioa jaso da aipatu bi planoetan".

Geltokirik gabe, oraingo

Trenbide pasagunea ezabatzea zen txokoalderaren eta Udalaren beste eskaeretakoa bat.

"ZUBI BERRIA 30 ZENTIMETRO IGO ETA ZABALDUKO EGINGO DUTE"

Honako hau kentzeko aukera teknikoak aztertze konpromisoa zehaztua dago baita hitzarmen horretan.

Udal gobernu taldearentzat, halere, ez dira aski konpromisoak. "Gehiago ere nahi genuen", zioen alkateak iragan asteko osoko bilkuran. Izan ere, lan hauek izango duten eraginarekiko kezkatuak daukela nabarmendu zuten. ETS-k aintzakotzat hartzea lortu ez duten eskaeretakoa bat, Txokoaldeko tren geltokia berreskuratzea izan da. "Azken unera arte borrokatu dugu. Gaurkoz, ordea, tamalez, ez diote bide eman", Agurtzane Solaberriaren esanetan.

EAJ-ko bozeramaile Xabier Otxoak Txokoaldeko bizilagunek "kalteak jasango dituztela, onurarik ez" zioen, "obregatik eta tren zerbitzuen maiztasun handitzeengatik". Auzoko geltokia berreskuratze arrazoiak aztertu beharko zirela zioen.

Adierazpen hauei erantzunez, ETS-tik arrazoiak aipatu zizkietela adierazi zuen alkateak; erabiltzaileak, trenbidea berri beharra eta tren zerbitzuen maiztasuna indartzeko geltokia berreskuratzeak ekar dezakeen denbora galera. Horren aurrean, alternatibak proposatu zizkietela adierazi zuen alkateak: tren zerbitzu guztiak Txokoalden ez geratzea, "premia handieneko orduetan" baizik; denbora galerarik ez izateko, zenbait uneetan tren Usurbilen geratu ordez, Txokoalden geratzea; edota Usurbilgo geltokia eta Txokoalde zein Aginaga aldea lotuko dituen autobus zerbitzua ezartzea ordu zehaztuz.

Eskaera hauei ezezkoa emateaz gain, udal gobernu taldeetik osoko bilkuran azaldu zuten, hitzarmena ez sinatzeko arriskuan izan zirenez, geltokia berreskuratze eskaera bertan ez jasotzea adostu zuten, baina ohartarazi dutenez, "eskaera hori bultzatzen jarraituko" dute.



Martxoko kantu-jira ez da martxoko azken larunbatean izango, martxoaren 24an baizik.

Pantxoa eta Peiori eskainitako kantu-jira berezia, ohi baino lehenago

Hilabete hau agurtzerako plazara irtengo da berriz Usurbilgo Euskal Kantu Taldea. Dena den, hitzordua aldatu egingo dutela iragarri dute. Hileko azken larunbatean beharrean, honakoan martxoaren 24an igandearekin irtengo dira. Eguerdiko 12:00etan batuko dira Mikel Laboa plazan.

Ez da aurreikusi duten berrikuntza bakarra izango. Hitzordu aldaketarekin batera, edukari dagokionean ere saio berezia iragarri dute; Pantxoa Karrereri eta Peio Ospitali eskainitakoa izango da.

Zazpigarren monografikoa

Azken urteotan beste hainbatetan egin duten moduan, monografikoei helduko die berriz Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Hala, Pantxoa eta Peioren abestiez soilik osaturiko kantu-jira prestatzen ari dira hilaren 24rako, astelehenero 18:00etan Agerialdeko musika gelan egiten dituzten entsegu saioetan. Otsaila amaieratik lanketa horretan dabilta buru-belarri, bilgune horretatik aditze-ra eman dutenez.

"Lehendik baditugu sei monografiko eginak: Imanol Lartzabal, Imanol Urbietta, Xabier Lete, Mikel Laboa, Joxan Artze eta Oskorri". Zazpigarrena izango da Pantxoa eta Peiori buruzkoa.

Pantxoa eta Peioren kantekin osatutako liburuxka berria

Aurrekoetan egin duten moduan, oraingoan ere, kantu-jira berezi horri begira, liburuxka berezi bat prestatu dute datorren herri barruko bira berezian abestuko dituzten 27 kantuekin. "Badira beste hainbat kantu eder baina gure galbaheak 27 kantu hauek aukeratu ditu, kantatuz, Pantxoa eta Peioren ekarpena gogoratzeko", dio liburuxka horretan Kantu Taldeak txertaturiko oharrak.

Aipatu 27 abesti horien guztiak letrak biltzen ditu dokumentuak. Bertan dira, besteak beste, "Bai Euskarari", "Ikastolako Ereserkia", "Kanta Aberria", "Batasuna"... Horrez gain, bimusikari eta abeslarien ibilbide oparoari buruzko hainbat zertzelada ere bildu ditu bertan, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak.

Orain arte landu dituzten dokumentuekin egin bezala, honako hau ere Sutegi udal

"PANTXOAK ETA PEIOK EUSKAL HERRIARI EGIN DIOTEN EKARPENA ESKERTU NAHI DUGU"

liburutegian duzue eskuragarri, nahi duenak kopia bat jaso dezan. Hilaren 24ko kantu-jirara doanari, abesten parte hartuko dutenei ere kopia bana helaraziko die Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. "Monografiko honek, Pantxoak eta Peiok Euskal Herriari egin dioten kantu eta kultura transmisioaren ekarpen aberatsa eskertzea du helburu. Omenaldi xume bat", aipatu herri bilguneko kideen esanetan. Izan ere, egoki asko oroitarazi duten moduan, "euskal kantagintzak eman duen bikoterik ezagun eta iraunkorrenetakoa osatzen dute Pantxoa Karrerek eta Peio Ospitalek. 60ko hamarkadan hasi ziren kantari, Ipar Euskal Herrian. Baina berehala Francoren menpeko euskal herri-tarrek himno bihurtuko zituzten haien kantuetako asko...".

"Kulturatik, genozidioari stop"

Euskal kulturgintza ere palestinar herriaren aurkako genozidioa etetea galdegiteko protestara batu da.

Igandean, Donostian

Manifestazio nazionala deitu dute martxoaren 17rako (igandea), aipatu herriari elkartasuna adierazteko. 12:30ean abiatuko da Alderdi Ederretik eta Haizearen Orrazian amaituko da. Bidean, hainbat musikari, abeslari, bertsolari, dantzariaren emanaldiak edota margolarien mural pintaketak izango dira. Helmugan, Haizearen Orrazian, giza esku hartze artistiko masibo bat irudikatuko dute.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna

aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurilaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nitzuke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrek zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. 676584506.

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

ZORION AGURRAK



Zorionak Jare!

Gure sorgintxoak 2 urte bete ditu. Muxu handi bat etxekoan partez.

HILDAKOAK



Lorenzo Urdangarin Camino

Martxoaren 7an hil zen, 85 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 14	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 15	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 16	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 17	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteartea, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 20	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 21	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 23	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 24	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 16, larunbata

- 10:00 Infantil neskek: Usurbil KE A-Aiala C ZKE
- 11:15 Infantil mutilak: Usurbil KE B-Ereintza
- 12:30 Infantil mutilak: Usurbil KE A-Amenabar A ZKE
- 15:45 Kadete neskek: Usurbil KE-Astigarraga
- 17:30 Senior mutilak: Saizar Usurbil KE-Aloñamendi
- 19:45 Senior neskek: -Urbil-Usurbil KE -Aloña Mendi

Martxoak 17, igandea

- 10:30 Kadete mutilak: Usurbil KE-MEK Eibar
- 12:00-13:15 Benjamin eta alebinen entrenamenduak.

Futbol partidak

Martxoak 16, larunbata

Haranetik kanpo:

- 11:00 Kadeteak, Oñatin: Aloña Mendi B-Usurbil FT
- 11:25 Infantil mutilak, Donostian: Lengokoak SD B-Usurbil FT
- 12:00 Infantil neskek, Hondarribiko Ondartzan: Hondarribia FE-Usurbil FT
- 14:00 Kadeteak, Donostian: Internacional CD-Usurbil FT B
- 15:55 Gorengoen jubenilak, Donostiako Felix Garinen: Arrupe CDDF B-Usurbil FT

- 16:00 Gorengoen neskek, Zestoa: Zestoa KB-Usurbil FT
- 17:30 Erregionalak, Irunen: Dunboa CD-Usurbil FT B

Martxoak 17, igandea

Haranen:

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT B-Zarautz KE B
- 17:00 Gorengoen mutilak: Usurbil FT-Hondarribia FE
- Haranetik kanpo:
 - 11:00 Kadete neskek, Añorgan: Añorga KKE B-Usurbil FT
 - 12:00 Kadete neskek, Oiartzun: Oiartzun KE B-Usurbil FT B

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 15

USURBIL Ikastaroa: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak"Bideratzailea: Aitor Etxeandia.
15:30-18:30 Potxoenean.**USURBIL 20. Soinurbil: Erromintxelak taldearen emanaldia**Arrasateko swing taldearen kontzertua. Euria balitz, frontoian.
19:00 Mikel Laboa plazan.**USURBIL 23. Korrika: azoka solidarioa**Egoera onean dauden jostailuak, liburuak, eskuz egindako gauzak, janaria,... egongo dira salgai".
16:15-16:45 Agerialdeko patioan.

LARUNBATA 16

USURBIL Usurbilgo Elkargunea eraikitzeke parte hartze prozesua

10:00-13:30 Udarregi ikastolako jangelan.

ZUBIETA 20. Soinurbil: "Ene Kantak" dantza ikuskizuna

Ene Kantak euskarazko haur kantak egiten dituen talde-ekimena da.

11:30 Zubietako frontoian.

USURBIL 20. Soinurbil: Landarbaso AbesbatzaBakarlarria: Erik Carrero.
Perkusioa: Jon Padilla. Pianoa: Miren Gabirondo. Zuzendaria: Iñaki Tolaretxipi.
19:00 Salvatore Elizan.

Ostiralean amaituko da azoka. 16.15-16:45 artean, Agerialdeko patioan.

Azoka solidarioa, LH6ko ikasleen eskutik

Korrikan, euskararen aldeko lasterketan lekukoa hartuko dutenen artean izango da Udarregi ikastola. Erosia duten kilometroa ordaintzeko eta diru ekarpen horren bidez AEK laguntzeko azoka solidarioa antolatu dute LH6. mailako ikasleek. "Egoera onean dauden jostailuak, janaria, liburuak eta eskuz egindako gauzak egongo dira

salgai", NOAUA!ri jakinarazi diotenez.

Erositako jakiak (glutendun eta gabeko gozogintza, patata tortila...) etxera eraman nahi izanez gero, salmenta postura taperrarekin joateko deia egin dute.

Martxoak 11-15

• 16:15-16:45 AEK laguntzeko azoka Agerialdeko patioan.

Pornografia nerabeen sexualitatean

Hitzaldi honen bidez, pornografiak nerabeen sexualitatean izan dezakeen eragina aztertu eta familiek nerabeen sexu-heziketan duten funtzioa indartu nahi da. Ostegun honetan, hilak 14, arratsaldeko 17:30etik aurrera Potxoenean. Plaza-kopurua mugatua denez, izena ematea komeni da, usurbilkultura.eus web orrialdean.

Osasun publikoaren aldeko mobilizazioa

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek manifestazio bana deitu dute larunbaterako, martxoaren 16rako, Osakidetza lurraldeko hiru hiriburuetan. Donostia-koa 17:00etan abiatuko da Bulebarretik, "Pribatizazio ez!" aldarriaren bueltan eta zaintza sistema publiko, duin eta kalitatezkoa bermatuko duen osasun publiko berri baten alde.

'Treba gurasoak' ikastaroa

Martxoak 21 osteguna

• 18:00etan 'Treba gurasoak ikastaroa' Potxoenean: "Komunikazioa familian. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa hobetzen", Leyre Canorekin.

• Antolatzaileak: Gaztelekua, Hitz Aho, Udala, Foru Aldundia.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031



Santuenea